



Entrenamendu- probak

Jarraibideak

Hona hemen Jotamgo Benetako Superheroien Akademiako probak.
Proba hauek egiteko, bakoitzari dagokion panela erakutsi behar diezu neska-mutilei.
Proba bakoitza balio zehatz bati lotuta dago, eta pegatina bat dauka, adierazten duen balioaren inisialarekin.
Proba bakoitza gainditzean, dagokion pegatina eman haurrari, eta zorionak ere eman, proba gainditzeagatik.

1. proba: Nire beharreen nor dagoen jakitea

Nola egin behar da proba hau?
Erakutsi neska-mutilei probari dagozkion ilustrazioak dauzkan kartoia. Bi modutara egin daiteke proba:
-Zehaztu ilustrazioetakoak nola sentitzen diren (pozik, haserre, beldurtuta, gaixo, harrituta eta triste), eta eskatu haurrei emozio horietako bakoitza zer pertsonaiari dagokion adierazteko.
-Pertsonaiak seinalatu, eta eskatu haurrei pertsonaia horiek nola sentitzen diren adierazteko.

2. proba: Elkartasuna

Nola egin behar da proba hau?
Erakutsi neska-mutilei probari dagozkion ilustrazioak.
Begira ditzatela ondo irudietako egoerak. Ondoren, bota irudi bakoitzari dagokion galdera, eta aukera dezatela zein litzatekeen jokabiderik egokiena.

A. Ilara luzea dagoenean txirristan ibiltzekot: Kolatu egiten naiz eta ni igotzen naiz aurrena. Nire txanda iristeko zain geratzen naiz, ilaran. Umore txarrez jartzen naiz eta alde egiten dut.	B. Jolasgaraian ikustean ikaskide bat bakar-bakarrrik dagoela: Nire lagunekin jolasten jarraitzen dut. Beregana hurbiltzen naiz eta nirekin jolastu nahi duen galdetzen diot. Iseka egiten diot, bakarrik dagoelako.	C. Lanean ari naizenean... Kontuz erabiltzen ditut gauzak, denonak direlako. Ez zait axola zerbait puskatzen badut. Aspertzen naizenean, margoak lurrera botatzen ditut.
--	--	--

Galderak talde osoari bota. Erantzuteko, eskua altxa dezatela, ados dauden aukeran.

Bukatutakoan, eman Elkartasuna balioari dagokion pegatina.



3. proba: Eskuzabaltasuna (Proba honek ez dakar irudirik)

Nola egin behar da proba hau?
Proba hau egin ahal izateko, bana daitekeen zerbait beharko duzue; eskura duzuen edozer: galletak, margoak... Bururatzen zaizuen edozer.
Bost umerekin baino gehiagorekin egin behar baduzue proba, aukeratu bost ume, eta gainerakoak behatzaileak izan daitezela.
Bost ume edo gutxiago egonez gero, zuzenean banatu galletak edo dena delakoa, baina ez denei berdin. Adibidez, bati bost eman, beste bati hiru, beste bati bat, eta biri bat ere ez.
Eman dezatela egoeraren aurrean beren iritzia.
Gero, galdetu: Nolakoa iruditzen zaizue egoera? Ados al zaudete egindako banaketarekin? Zer egin dezakegu denok pozik egoteko?

Bukatutakoan, eman Eskuzabaltasuna balioari dagokion pegatina.



4. proba: Besteekiko errespetua

Nola egin behar da proba hau?
Nola egin behar da proba hau?
Erakutsi neska-mutilei probari dagozkion ilustrazioak. Begira ditzatela ondo irudietan agertzen diren egoerak, eta galdetu: Zer ari da gertatzen? Zer egin beharko genuke horren aurrean?
A eta B irudietan behatzailearen figura ikusten edo ulertzen ez badute, azalpen batzuk eman.
Zer egiten ari da behatzailea? Ondo ari dela iruditzen al zaizue?
C irudian ez dago behatzailerik. Galdetu: Zuek zer egingo zenukete egoera horren aurrean?
Nabarmendu garrantzitsua dela besteak errespetatzea, baina baita norbait errespeturik gabe ari denean jardutea ere.

5. proba: Planetarekiko errespetua

URA
Nola egin behar da proba hau?
Erakutsi neska-mutilei probari dagozkion ilustrazioak. Begira ditzatela ondo irudietan agertzen diren egoerak. Ura alferrik gastatzearrekin daude lotuta. Eta galdetu: Zer egiten ari dira neska-mutil hauek gaizki?
Egoera bakoitzari tartetxo bat eskaini, eta galderari erantzuteko denbora eman. Unea aprobetxa dezakezue galdetzeko etxean eta ikastetxean ondo erabiltzen duten ura, eta gogorarazi garrantzitsua dela ura alferrik ez gastatzea.

BIRZIKLA DEZAGUN
Nola egin behar da proba hau?
Erakutsi neska-mutilei probari dagozkion ilustrazioak. Esan dezatela zer ikusten duten irudietan eta ikusten duten hori zer iruditzen zaien.
Esan ingurua garbitu behar duzuela, eta hondakin bakoitza dagokion edukiontzira bota behar dela (gogorarazi zer edukiontzi egoten diren eta bakoitzera zer bota daitekeen).
Horretarako, hondakin bat aukeratu, eta galdetu zer edukiontzitan bota behar den

Errespetuaren balioari dagokion azken proba da hau.
Beraz, amaitutakoan, eman dagokion pegatina.



6. proba: Munduko beste herrialde batzuetako superheroiak

Nola egin behar da proba hau?
Erakutsi neska-mutilei argazkiak. Esan munduko beste herrialde batzuetako benetako superheroiak ezagutuko dituztela, eta ikusiko dutela zergatik diren benetako superheroi. Olisa eta Ernesto aurkeztu, eta esan adi-adi entzuteko haien kontakizuna.
Olisaren eta Ernestoren audioak entzun edo mezuak irakurri.
Zer egiten dute Olisak eta Ernestok egunero-egunero? Ea neska-mutilei zer egiten zaien deigarrien.
Erakutsi argazkiak eta galdetu:
Zer ikusten duzue argazki hauetan? Galdetu nolakoa den Ernestoren eskola, hemengoan antzekoa den edo ez, zergatik... Daukagunari balioa ematea zeinen garrantzitsua den nabarmendu.
Zergatik dira benetako superheroiak? Eman dezatela beren iritzia.
Nabarmendu Olisak eta Ernestok ez dituztela haiek bezainbeste gauza, baina, hala ere, ahalegina egiten dutela ikasle onak izateko. Eta, familiari lagundu behar izaten dioten arren, beti garaiz amaitzen dituztela etxeko lanak, eta inoiz ez direla kezkatzen etxeko lanak dauzkatelako; horregatik dira benetako superheroiak. Kontura daitezela beste batzuek ez dutela haiek bezainbesteko zortea, eta balioa eman behar diogula daukagunari.